

Euskararen Gaitasun Agiria

IDAZLANA 08-03-08

- 1. Argi idatzi behar da, eta albait garbien.*
- 2. Idazlanak gutxienez 300 hitz izan behar ditu.*
- 3. Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz:*
 - a) gaiaren eraketa eta garapena;*
 - b) hizkuntza-aberastasuna eta zehaztasuna;*
 - c) zuzentasuna.*
- 4. Orrialde bat izango duzu gidoia egiteko, apunteak biltzek ... Ez da zuzenduko.*
- 5. Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko, laguntza moduan, dossier bana eta puntu batzuk dituzu: galderak, gogoetak, iritziak... Ez dira nahitaez kontuan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdi batzuetan oinarriturik ere egin dezakezu.*
- 6. Aukeratutako gaia garatzeko iritzi askatasuna duzu. Beti ere, begirunez joka ezazu: saihestu jarrera sexistak, homofoboak, arrazistak...*



Euskararen Gaitasun Agiria

GATA

HIRU MILIOI BIZILAGUN

2006ko datuen arabera, 3.005.570 biztanle gara Euskal Herrian

Biztanleriaren bilakaera, herrialdeka. Euskal Herria, 1877-2001



1980tik ia MENDE
AMAIERARA ARTE
HAZKUNDE PROZESUA
GELDITU EGIN ZEN.
ORAIN BERRIRO HASI DA
Populazioa, oro har,
zahartu egin da
azken hamarkadetan


1950-1975
bitartean,
hazkunde
handia: milioi
bat biztanle
gehiago (%70).
Inmigrazio
handia eta
jaiotza tasa.

Nafarroa Beherea eta Zuberoa
hustu egin dira XX. mendean.
Araban eta Nafarroan, hiriburu-
jo du jendeak. Iparraldean,
kostaldera edo erbestera.

	1877	1950	1975	2001
Araba	97.954	122.172	240.267	287.928
Bizkaia	190.523	569.944	1.152.141	1.123.002
Gipuzkoa	167.207	374.040	682.507	673.563
Nafarroa Garaia	304.184	382.932	483.867	555.829
Lapurdi	91.121	138.405	178.764	219.029
Nafarroa Beherea	49.285	35.056	30.919	28.076
Zuberoa	25.096	20.723	18.629	15.535
EUSKAL HERRIA	925.370	1.643.272	2.787.094	2.902.962

Iturria: EUSTAT, IEN, INE, INSEE

Biztanleak, 2001




Euskal Herria: 2.902.962 biztanle

EH datuen itaialatik. Udaltzitatea, 2002

Herrialdeen
artean, alde
handiak. Bizkaia
eta Gipuzkoa
populatuena,
Nafarroa Beherea
eta Zuberoa,
berriz, jende
gutxi dute.

Dentsitatea, 2001



Euskal Herria: 138,6 Biztanle/Km²

EH datuen itaialatik. Udaltzitatea, 2002

Idatz ezazu gai horri buruz. **Gutxienez 300 hitz.** Hartzaile: aldezkarri edo egunkari bateko irakurleak. Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Hiru milioi Euskal Herrian. Asko, gutxi? Zein da zure iritzia?
- Desoreka handiak daude herrialdeen artean. Zergatik gertatzen da hori?
- Herri txikiak husten, hiriak hazten...
- Populazioa zahartzen, eta Europako jaiotza tasarik txikiena. Ondorioak. Konponbideak.
- Baserri-arrantzatik industriara, zerbitzuetara... Zer bizimodu aurreikusten duzu?

Euskararen Gaitasun Agiria

GATA

NESKAK KIROLARI

Ez mutilak beste, baina gero
eta neska kirolari gehiago




Argazkia: I. Ugarteburu

Emakumeen kirola,
beste urrats bat
berdintasunaren
bidean?




Argazkia: I. Ugarteburu

Ilustr.: Gure Sport aldizkaria, 28. zenb.



Ilustr.: Gure Sport aldizkaria, 28. zenb.



Argazkia: I. Ugarteburu

□ Nesken artean ere futbola
modan: jokatzeko nahiz
ikusieko.

Topikoak, aurreiritziak... Kirol
batzuk ez omen dira egokiak
neskentzat.

Idatz ezazu gai horri buruz. **Gutxienez 300 hitz.** Hartzaile: zeure eskualdeko aldizkari bateko irakurleak. Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Badira neska kirolariak baina mutilak baino askoz gutxiago oraindik.
- Arlo gehienetan, gaur egun ez dirudi neskak kirolari profesional izan daitezkeenik.
- Neskak kirolean hasten dira baina gazterik uzten diote kirola egiteari. Zergatik ote?
- Nesken kirolak ez omen du "saltzen" eta negozio aukerarik sortzen komunikabideetan.
- Ba omen dira mutilen eta nesken kirolak: ez dute aukera bera egiten batzuek eta besteek.